



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko urtarrilaren 29an

6 ZK.

### A U R K I B I D E A

F S A I L A:

**Galderak:**

- Ezkaurre mendiaren baso-antolamenduari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Abaurregainan ereindako patata bildu, tratatu eta merkaturatzeko biltegi bat eraikitzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Abiadura handiko trenaren proiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Magnesitas enpresaren isurketa kutsatzailei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Vianako Printzea kontsultategiko Harrera Zerbitzuaren funtzionamen-duari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Karlismoari loturiko balio historikoko materiala berreskuratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Nafarroako Gobernuak eta RTVEk Nafarroako lurralde-ordutegia zabal-tzeko lankidetz hitzarmena izenpetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- RTVEren zentroaren programazio-orduak zabaltzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Belateko tuneletako errepide zatian izandako istripuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Nafarroako gasolindegietako erregai-hornigailuen neurketak ikuskatu eta kontrolatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- “Dirulaguntzak nekazaritza sindikatueterako” aurrekontu kontusailaren egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Potasas de Subizako meategi zaharraren lurretan gertatutako lur-jausiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Alokairuko etxebizitzetxei eta errentariek ordaintzen dutenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutuan dagoen langile-kopu-ruari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Argi ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketak garape-nari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Ega ibaian habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketak garatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Uderra ibaian habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketak gara-tzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Uderra ibaiaren arroan laginketa elektrikoak egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Ingurugiro Zerbitzuak egindako ikuskapen aktei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Aldi batzuetan egiten diren aparteko orduei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Ziordiko lurrazpiko pasabidearen eta Ziordia eta Olaztiren arteko lotura-ren arazoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Ablitas-Tutera errepidea zabaltzeko obren atzerapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Arratsaldez zerbitzua ematen duten osasun zentroi buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Tafallako Osasun Etxearen ginekologi zerbitzuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Kontrapasaren inguruko administrazio-espedientearen egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Ultzama ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketak garapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Ezkaurre mendiaren baso-antolamenduari buruzko galdera****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Ezkaurre mendiaren baso-antolamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 29ko 88. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko Ion Iñaki Erro Armendáriz Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ezkaurre mendiaren iparraldeko hegian dagoen izeidi-pagadian egiten ari diren zuhaitz-ebaketa eta basobideei buruz. Hona Ingurugiro, Lurra- ren Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ezkaurre mendiko izeidi-pagadian ebaketa eta bide horiek egiteko baso-antolamendurako proiekturik ba al dago?

Ez dago Antolamendu Proiekturik Erronkaribarreko Batzar Nagusiari dagozkion mendi herribasoetarako, eta Ezkaurre mendia horien artean dago, hain zuzen ere. Antolamendu Proiekturik ez duenez, kontuan hartutako urteko aukera Mendi Erregelamendua onesten duen otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretuaren 76.2 Artikuluan ezarritakoaren arabera aplikatzen da, eta bertan finkatzen den gehieneko urteko aukera 0,75 m<sup>3</sup>/populatutako Ha.ko da, antolamendurik gabeko edo kudeaketako plan teknikorik gabe hobekuntza eta saneamenduko ebaketen bidez. Batzar Nagusiaren mendietako populatutako azaleraren araberrako urteko aukera 4.200 m<sup>3</sup>/urteko inguru da.

2.- Nafarroako Gobernuaren aburuz, zer nola- ko ondorio dute edo izan dezakete jarduketa hauek hartza- ren kontserbazioari dagokionez?

1995ean Ezkaurre edo Belabazeko inguruko aprobetxamendua onetsi aurretik, garaiko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Departamentuaren Mendi Zerbitzuak garaiko Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Departamentuaren alde- z aurreko baimena eskatu zuen. Adierazitako Departamenduak ingurugiro-azterlana egin zuen eta, Zuzendari Nagusiaren Ebazpenaren bidez, seinaleztapena onetsi zen eransten den kopian adierazten diren baldintzekin. Ondorengo urteetan –1996 eta 1997an– seinaleztapen eta aprobetxamendu gehiago egin ziren, adierazitako Ebazpenaren irizpideei jarraituz. Adierazitako Ebazpen- an ez da Hartz Arrea Leheneratzeko Plana aipatzen.

Natur Ingurunea Kudeatzeko Ataleko teknika- riek diotenez ez omen dira beharrezkoak hartz arrea babesteko neurri berezi berriak, espezie hori babesteko helburuak beteta baitaude Atzaperreta eta Ukerdiko erreserba integralen eta Larrako Erreserbaren Natur deklarazioarekin hartutako neurrien bidez.

3.-Nafarroako Ingurugiro Departamentuak Ezkaurre mendian zuhaitz-ebaketa eta baso bide horiek egiteko baimenik eman al du? Baiezkoan, zertan oinarritu du baimen hori?

1995eko lehen aprobetxamendua, adierazitako Ebazpenaren gomendioekin, garaiko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapenerako Kontseilariaren abuztuaren 28ko Foru Aginduak baimen- du zuen. 1996 eta 1977ko aprobetxamenduak hurrenez hurreneko Ingurugiro Zuzendari Nagusiek onetsi zituzten.

Bideei dagokionez, ez dira benetako baso- bideak zabaldu, baso-soiltzeko bideak edo terrex- kak baizik, basoko produktuak baso-traktorearen bidez ateratzeko, Belabazeko ibarrarekin lotzen duen terrexka nagusiraino iritsi arte.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 12an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Oharra: aipatu kopia Foru Parlamentarien esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## **Abaurregainan ereindako patata bildu, tratatu eta merkaturatzeko biltegi bat eraikitzeari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak Abaurregainan ereindako patata bildu, tratatu eta merkaturatzeko biltegi bat eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Ezker Abertzalea” Parlamentari Taldeko Patxi Zabaleta Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Abaurregainan ereindako patata bildu, tratatu eta merkaturatzeko biltegi bat eraikitzeari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Herrien Sustapenerako Kontseilariaren 1996ko apirilaren 15eko

Foru Aginduaren eta 1996ko maiatzaren 27ko Foru Aginduaren bidez, Abaurregainan ereindako patata bereizteko zentro bat eraikitzeke, bai eta makina eta instalazioetarako ere, dirulaguntza ematea onetsi zen, Nafarroako Aurrekontu Orokorren eta FEOGAren fondoekin, hurrenez hurren.

Dirulaguntza 15.194.962 pezetakoa izan zen Nafarroako Aurrekontuei dagokionez, eta 22.792.443 pezetakoa FEOGARi dagokionez.

OPPOSAko Administrazio Kontseiluaren uste-tan egokiagoa zen eraikin zaharra eraistea eta berria eraikitzea, eta Abaurregaina herria auke-ratu zen horretarako, Pirinioko patataren eskual-dea osatzen duten herrien artean gehien erein-tzen duena dela kontuan hartuta.

Hori guztia jakinarazi dizut Ganbararen Erre-gelamenduko 190. artikuluan ezarritakoari jarrai-tuz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 12an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kon-tseilaria: Ignacio Javier Martinez Alfaro

## Abiadura handiko trenaren proiektuari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Abiadura handiko trenaren proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 10eko 12. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Abiadura handiko trenari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer kudeaketa burutu dituen Nafarroako Gobernuak abiadura handiko trena dela-eta, Estatu Administrazioak aurreikusitako trazadurak Nafarroako Foru Komunitatea barne hartuko duen ala ez jakiteko.

Komunitate honetako lehorreko komunikazioak direla-eta, Nafarroako Gobernuarentzat oso garrantzitsua da XXI. mendean gure trenbide-sarea Espainiako eta E.B.eko trenbide-sarerik garrantzitsuenen barruan egotea, Abiadura Handiko Nafar Trazaketari esker; halaxe aurreikusita baitago indarrean dauden horri buruzko planetan. Plan hauek dira: estatu-mailako Azpiegitura-Plan Zuzendaria (P.D.I. 1993-2007) eta Europaz gaindikoa Trenbide-Sarearen Plan Horizonte 2010, Europako Batasuneko.

Aurrekoaren arabera, Trenbide-Trazaketa honi eman zaion zeregina finkatu eta bultzatu nahirik, egoki iritzitako kudeaketak oro egiten ari da Nafarroako Gobernu Administrazio eskudunen aurrean, aipaturiko planak oinarritzat hartuta beti.

2. Zer jarduketa burutzen ari den Nafarroako Gobernuak azpiegitura hori dela-eta, teknikaren aldetik (trazadura, ingurugiro eragina, kostuak eta Nafarroako Administrazioarentzako eragin ekonomikoa) eta Administrazioaren aldetik (trenbide hori nondik sartu eta aterako den, Nafarroan izango dituen geralekuak, eta abar).

Etorkizuneko azpiegitura honi lotuta Nafarroako Gobernuak bultzatzen dituen jarduketek helbu-

rutzat daukate Sustapen Ministerioarekin elkarlanean aritzea, gaur egun beraren esku baitago horri buruzko eskumena, azterlanak egin eta horien jarraipena egiteko.

Trazaketei buruzko azterlanei dagokienez, horra lankidetzara horren helburuak: lan-eskalak uzten digun neurrian, aztertu-beharreko konponbideek ezaugarri teknikoak eta funtzionalak betetzea; eta gainera, hainbat puntu ahalik eta gehien errespetatzea, esaterako, ingurugiroa, lurraldearen antolamendua, kultur-ondasunak, e.a. Hori guztia Jarraipen Batzorde baten bidez bideratu behar da, non parte hartuko baitute gai horietan eskumenak dituzten hainbat Departamentuk.

Gai honi buruz indarrean dagoen planifikazioarekin bat eginik, 2007. urteaz geroztik ekingo zaie Trazaketaren lanei; beraz, horren finantzaketarako ez dago ezer hitzarturik oraindik, ez Nafarroako Gobernuaren aldetik ez Nazioko Gobernuaren aldetik.

Nafarroako sarrera-irteerak baldintzatzen dituzten hainbat puntu aipatu behar dira, besteak beste: hegoaldean, trazaketaren funtzionaltasuna, hala nola Espainiako abiadura handiko linearen biharko ardatz-hezurraren lotura (Sevilla-Madril-Zaragoza-Bartzelona); eta Pirinio-mendebaldean, abiadura handiko sare europarra (azken fasean, trazaketa bera erdibanatuko dute Euskal Y dela medio). Aurrekontua alternatibean arabera aldatzen bada ere, berrehun eta berrogeita hamar mila milioi pezetakoa izanen da gutxi gora-behera.

Behin ibiltzen hasita, Iruñak Abiadura Handiko Geraleku berria izango du. Eta bidaiari-eskaerek hala justifikatzen duten egunean, Tuteran geltoki berria eraikitzeke aukera ere aurreikusita dago.

3. Zer egoeratan dagoen orain abiadura handiko trenaren proiektua, Nafarroa zeharka dezakeen adarra dela-eta?

Laster, Abiadura Handiko Nafar Trazaketaren Alternatibei buruzko Ikerketa amaituko du Sustapen Ministerioak. Ikerketa hori egiteko orduan, ondoko hiru bidezatiak bereizi egin dira:

I. bidezatia: Abiadura Handiko Linea (Madril-Zaragoza-Oriz)

II. bidezatia: Oriz-Zuasti

III. bidezatia: Iruña/Euskal Y Lotura

Ikerketa honen lan-eskala 1:20.000koa da I. eta III. bidezatentzat, eta 1:5.000koa II. bidezatierentzat. II. bidezatian erabilitako doitasuna handiagoa da, bertako hiri eta industri guneen presioa benetan handia delako.

Uste izatekoa denez, I. eta III. bidezatiei dagozkien ikerlanen ondorengo faseetan, orain ikertu diren trazaketan alternatibak baliteke kontuan hartzeko aldaketak jasatea, batez ere, saihesteko (baldintzapen teknikoek utziko diguten neurrian, behintzat) orain ikus daitezkeen afekzioak erabilitako eskalarengatik zehaztu ezin izan

ditugunak, edota doitasun handiagoko lan-eskalen araberrako informazio eta dokumentazioa erabiltzean detektatu ahal izan direnak.

Goian esankadoa gogoan harturik, hobe da egungo faseari dagozkion trazaketa horiek guztiak ahalik eta zuhertasunik handienaz baloratzea, argituak izanen baitira ingurugiro-eragin izendapenerako eta jendaurreko erakusketarako faseetan.

Iruñean, 1998ko otsailaren 2an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## Magnesitas enpresaren isurketa kutsatzailei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Magnesitas enpresaren isurketa kutsatzailei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 29ko 88. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak galdera egin du Magnesitas Navarras SA enpresaren isurketa kutsatzailei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari Ramón Bultó Llevat jaunaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren bidez eta eskueran dituen legezko mekanismoak erabiliz, irmo exijitu dio Magnesitas Navarras SA enpresari neurri zuzentzaileak hartzea bere instalazioak indarrean dagoen ingurugiro-arautegiaren eskakizunetara egokitzeko, Ingurugiro Atmosferikoa Zaintzeko Legea eta bat datozen xedapenak barne.

Eskakizun horien ondorioz, eta enpresa gisa duen bideragarritasuna eta jarraitasuna ziurtatu ondoren, Magnesitas Navarras SAK txosten bat landu zuen 1992an, 1986ko aurreko proiektu batean oinarritutakoa, bere industria-instalazioen

ingurugiro-eraginari buruzkoa; bertan, modu sinplifikatuan, bere jarduerak sortutako ingurugiro-problematika, horri konponbidea emateko neurri zuzentzaileak eta epe motz, ertain eta luzerako egutegia biltzen zen, horien guztien balorazio ekonomikoarekin batera. Zehazki, atmosferarako isurketen arloan 337 milioi pezetako inbertsioa aurreikusten zen 1992/96 aldiari zegozkion deshausteari zuzendutako jardueretarako.

Nafarroako Gobernuak, bestalde, laguntzak eskaini zizkion egin beharreko inbertsioetarako dirulaguntzak emanez, kutsaduraren aurkako Laguntza Erregelamendua onesten duen irailaren 16ko 4/1982 Foru Dekretuaren babespean.

Plan honen ondorio gisa, adierazitako aldi horretan isurketa-gune desberdinetako partikula-isurketak ezabatzeari ekin zitzaion, hartzeko, erauzteko eta iragazteko sistemen instalazioaren, bitarteko mekanikoen (pala kargatzaileak) bidezko garraio kentzearen eta uhal garraiatzaileen karentzearen bidez.

Atmosferarako partikulen isurketa-gune handiena diren kaltzinazio-labeei dagokionez, adierazitako partikula horiek ezabatzeko arazorik handiena errekontza-gasetan sufre-oxidoak egoteak eragindako magnesio-sulfatoen formazioa da; gas haietan ur-lurrina agertzeak sulfato hauen hidratazioa sortzen du, ondoren deshausteko instalazioen gailuen gaineko fraguatzea eraginez, horren guztiaren ondorioz, instalazio horiek erabat erabiltezin geratzen dira epe laburrean. Hori dela eta, hartu beharreko neurriei buruzko oso azterlan zorrotza egin behar izan zen.



Honela, lehen fase batean, 1993/94 aldiari dagokiona, multizikloien baterien bidezko partikulak ezabatzeko sistema baten instalazioari ekin zitzaion bi labeetan, eta isurketak portzentaia altuan gutxitu zituzten, horren ondoriozko magnesio-oxidoko hautsaren berreskuratzea ahalbidetuz, isurketa-mailek zituzten balioek indarrean zegoen araudiak baimendutako gehienezkoak oraindik ere nabarmen gainditzen zituzten arren. Arestian ere azaldu dugun hautsa ezabatzeko tratamenduaren konplexutasun berezia kontuan izanda, 1995ean labeetako keak iragazteko instalazio pilotu bat egiteari ekin zitzaion, eta bertan material- eta kontroleko sistema-mota desberdinak entsegatu dira; horrek guztiak iragazteko instalazio eraginkorra eta funtzionamendu-bermea duena definitzea ahalbidetu du, material iragazkorri dagokionez merkatuko azken berritasunak erabiliz.

Entsegu hauen ondorioz, eta frogetan izandako emaitzen arabera, 1997an 3. labearen gasen irteeraren mahuka-iragazki baten instalazioari ekin zaio, tximinia berri eta zurgatzeko haizagailu batekin batera. Adierazitako iragazkia joan den urtarrilaren 27an jarri zuten martxan, hasierako emaitza guztiz egokiak lortuz, eta gaur egun probaldian dago.

Labeetan ziklonatzearen bidez berreskuratzen den hautsa sortzen da, eta gutxi gorabehera 30.000 Tm/urteko lortzen dira. Hortaz gain, hautsa sortzen da labeetako ihes-gasetan, gutxi gorabehera 2.275 mgr/m<sup>3</sup>Nko gehienezko edukiarekin, ingurugiro-legediak ezarritako gehienezko edukiak gainditzen dituena, izan ere 30 mgr/m<sup>3</sup>N arte baimentzen baitu. Adierazitako hautsaren %65 eta %70aren artekoa magnesio-oxidoa da; gainerakoa aluminaz, silizez, karez, oxidoz eta burni sulfatoz osatutako elementuak eta kaltzio-karbonato eta magnesio sutarako isurketak dira.

Instalatutako mahuka-iragazkiak 3. labeetik datozen gasak 90.000 m<sup>3</sup>N/orduko zenbatekoan eta 370°C-ko tenperaturan tratatzen ditu. Adierazitako instalazioak isurketa-gasen hauts-educia 10 mgr/m<sup>3</sup>N-tik behera gutxitzea ahalbidetzen du, hau da, legeak araututakoa baino hiru bider gutxiago. Guztira, adierazitako iragazkiak une

honetan 9.000 pta/Tmko merkatu-prezioa duen material baten 1.615 Tm/urteko lor ditzake, hau da, 14,5 milioi pta/urteko salmentako guztirako balioa.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamenduaren esku dago instalazioaren aholkularitza, kontrola eta jarraipena eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamenduak kontrolatzen eta baimentzen ditu mahuka-iragazkiaren instalazioarekin erlazionatutako industria-segurtasuneko alderdi partzialak (Behe Tentsioko eta Presiozko Aparatuetoako proiektuak) eta Mehatze Segurtasuneko Oinarrizko Arauen Erregelamendu Orokorretik eratorri daitezkeen alderdiak.

Probaldiaren ondoren hasierako emaitzak baieztatzen badira, lehenengo hilabeteetan 2. labean keak arazteko ezaugarri berak dituen sistemaren instalazioa aurreikusita dago; urtea amaitu aurretik hasiko litzateke lanean, eta horren arabera, urte honen amaierarako Esteribarren partikulengatiko kutsaduraren arazoa behin-betiko konpontzea eta magnesio-oxidoko hautsaren berreskuratzea erabatekoa izatea espero da.

Magnesitas de Navarra SA enpresak 1992/96 aldiaren kutsadura atmosferikoa gutxitzeko instalazioen kontzeptupean eginiko inbertsioen dirukopurua 484.540.123 pta da, eta Nafarroako Gobernuaren hainbat dirulaguntza izan ditu; horien guztirako zenbatekoa 162.897.515 pta da, inbertsioaren %33,6, hain zuzen ere.

Iaz aurreikusitako kontzeptu berarengatiko inbertsioen guztirako zenbatekoa 178.796.868 pta da; horietatik 143.963.900 pta mahuka-iragazkiaren instalazioari dagozkio.

Aurtengo ekitaldirako antzeko inbertsioa aurreikusita dago, iragazketa-instalazioaren emaitza onak baieztatzen badira eta 2. labean instalatzeari ekiten bazaio.

1997 urtean Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa 52.543.237 pta da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 16an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bulto Llevat

## Vianako Printzea kontsultategiko Harrera Zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Vianako Printzea kontsultategiko Harrera Zerbitzuaren funtzionamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 10eko 12. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Vianako Printzea" kontsultategiko zita hartzeko 42.20.20 telefonoaren funtzionamenduari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

a) 1998ko urtarrilaren lehen hamabostaldian, 42.20.20 telefonora eginiko deiak gainezka zeudelako albiste iritsi zen.

Konponbidea bilatu nahirik, ondoko jarduketak eraman ziren aurrera:

- Aipaturiko telefono-zenbakiaren dei-kopurua aztertzea.

- Harrera-zerbitzuko telefonoari erantzuteko, beste lanpostu bat eskaintzea (ordenagailua, telefono-linea, telefonoa eta entzungailuak, eta harre-rako informatika-programaren konexioa barne).

- Tuter eta Lizarrako Osasun Arloekin harremanetan jartzea, aipatu inguruetakoa gaixoei zita-zirkuitu berria eskaintzeko, helburua izanik gaixoak berak zita gestionatu beharrik ez izatea, "Vianako Printzea" kontsultategiko telefonora deitu beharrik egon ez dadin.

b) 1998ko otsailaren 5az geroztik, ondoko konponbideak hartu dira arazoari irtenbidea emateko:

1. Harrera Zerbitzuko 42.20.20 telefonoari erabat eskainita beste lanpostu bat sortzea, eta noiz-behinka, batez ere puntako orduetan, beste lanpostu bat eskaintzea zerbitzua indartzeko.

2. Tuter eta Lizarrako Osasun Barrutietako gaixoak zitatzea, postaz edo faxez eginen da Ospitale desberdinen eta "Vianako Printzea" kontsultategiaren artean, honako helburuak lortzeko:

- Hiritarrari zerbitzua erraztea, zita hark berak gestionatu-beharrik izan ez dezan.

- 42.20.20 telefono-zenbakira egiten diren deien kopurua jaistea.

c) Neurri horiekin zitzazio-telefonoaren gainez-kako arazoak konpontzea espero da; hala ere, neurrien jarraipena eginen da, bestelako neurriak hartzea beharrezkoa bailitzan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 12an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto



## **Karlismoari loturiko balio historikoko materiala berreskuratzeari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak karlismoari loturiko balio historikoko materiala berreskuratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Inmaculada Matias Angulo Foru Parlamentari andreak galdera egin du karlismoari loturiko balio historikoko materiala berreskuratzeari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak karlismoaren museo bat sortzeko ikerketak hasteko agindua eman zion Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiari. Kultura Zuzendaritza Nagusiak karlismoaren ustezko arduradunak bilerara batera deitu zituen, Vélez eta Pérez-Nievas jaunak horien artean. Jasotako agindua azaldu zitzaie, bai eta Gobernuak gai hori aurrera eramateko zuen asmoa ere, eta horretarako erabat ezinbestekoa zen alderdi karlistaren asmoak eta museoan bil zitezkeen izaera historikoko piezak ezagutzea. Alderdi karlistako ordezkariak, ahoz, karlismoaren museoaren sortzearen alde zeudela adierazi ondoren, beren esanetan alderdi karlistaren titulartasunekoak diren piezen zerrenda aurkezteko konpromisoa hartu zuten.

Orain arte, adierazitako Vélez eta Pérez-Nievas jaunak ez dira berriro harremanetan jarri Kul-

tura Zuzendaritza Nagusiarekin, eta ez dute proiektuan dagoen museoak bilduko zituen piezen zerrendarik ere igorri. Horrenbestez, Kultura Zuzendaritza Nagusiak ez daki zein den alderdi karlistaren ordezkarien benetako asmoa, ez eta karlismoaren museoaren sortzeko nahikoa pieza dauden ere, bai kopuruari bai kalitateari dagokionez.

2.- Kultura Zuzendaritza Nagusiak zenbait kokapen posible aztertu ditu eta gehienak bazter utzi ditu. Lizarrako hiriko zenbait eraikin hartu ditu kontuan batik bat, Gobernadorearen Jauregia, besteak beste. Ez dago museo-proiekturik egiteko aukerarik, izan ere ez baitira ezagutzen adierazitako museoak bilduko lituzkeen piezak, eta horrenbestez, akordiora iristeko elkarrizketei ez zaie hasiera eman.

3.- Argi dago ikerketa-zentroa museoari zuzenean lotuta dagoela. Izan ere, museoaren bera ikerketa-zentro bat da, karlismoari buruzko monografiakoa, kasu honetan. Museo-proiekturik ez dagoenez, argi dago ez dagoela ikerketa-zentrorik.

4.- Erabakiak hartzeko alderdi karlistaren menpe gaudenez, oso zaila da epeak ezartzea, izan ere ebazpenak adostasunean oinarrituz eta apurka-apurka hartzen baitira, eta zenbait funtsezko gairi buruz alderdi karlistak hartzen duen erabakiaren zain gaude.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 11n

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Nafarroako Gobernuak eta RTVEk Nafarroako lurralde-ordutegia zabal- tzeko lankidetzaren hitzarmena izenpetzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuak eta RTVEk Nafarroako lurralde-ordutegia zabal-  
tzeko lankidetzaren hitzarmena izenpetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizia-  
lean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parla-  
mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Par-  
lamentari Taldeko M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak galdera egin du Nafa-  
rroako Gobernuak eta RTVEk Nafarroako lurralde-  
ordutegia zabaltzeko lankidetzaren hitzarmena izen-  
petzeari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta  
Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Egia al da Nafarroako Gobernuak eta RTVEk lankidetzaren hitzarmena izenpetzeko dutela Nafarroako lurralde-ordutegia zabaltzeko?

Une honetan elkarrizketak ditugu Radiotelevisi-  
on Española Erakunde Publikoarekin Lankidetzaren  
Hitzarmen bat gauzatu ahal izateko, RTVE titula-  
rra den telebista-kateetan emititzen den eskualde-  
ko programazioa zabaltzea ahalbidetzen duten  
formula zehatzak bideratzeko.

2.- Zergatik ez zaio aurretik eman Parla-  
mentuari RTVErekiko lankidetzaren hitzarmenaren berri?

1996ko azaroaren 28an Nafarroako Parla-  
mentuak, osoko bilkuran, Nafarroako Gobernuari  
Radio Television Españolako Zuzendaritzarekin  
Nafarroako Foru Komunitateak komunikabide  
publikoetan behar adinako iraupena duen berezko  
programazioa ahalbidetzen duen lurralde-desko-  
nexioei buruzko hitzarmena edo akordioa lortzeko  
elkarrizketei ekitea eskatzen zion mozioa onetsi  
zuen.

Horrenbestez, Nafarroako Parla-  
mentuak lankidetzaren hitzarmena ezartzeko Gobernuak RTVE-  
renkin dituen elkarrizketen berri izateaz gain, Parla-  
mentuak berak eskatu zion Gobernuari  
lankidetzaren hitzarmen hori ezartzea.

3.- Zein da aipatu lankidetzaren hitzarmenak har-  
tzen duen ordutegia, edukia eta kostu ekonomi-  
koa?

Une honetan oraindik ez dago itxita Nafarroa-  
ko Gobernuaren eta RTVEren arteko lankidetzaren  
akordioaren edukia eta kostu ekonomikoa.

Ordutegiari dagokionez, nazio-mailako progra-  
mazioaren plangintza egokia ahalbidetzeko des-  
konexioak dagozkion Akordioak izenpetzen dituz-  
ten Autonomia Erkidego guztietan aldi berean  
gertatzea komeni denez, deskonexioa gauza dai-  
tekeen ordutegiak ondokoak dira:

- TVEko lehen katean, astelehenetik ostiralera,  
biak barne, 14:00etatik 14:30ak arte.

- TVEko bigarren katean, astelehenetik ostira-  
lera, biak barne, 19:00etatik 21:00ak arte eta  
larunbatean eta igandean 20:00etatik 20:30ak  
arte.

4.- Nafarroak bere frekuentzia izateko eskaririk  
egin al da kate autonomikoa jartzeko?

Nafarroako Gobernuak Hirugarren katea  
1984ko ekainaren 20ko Akordioaren bidez eskatu  
zuen (Plan Tekniko bat lantzeko Hirugarren Kate-  
aren abenduaren 26ko 46/1983 Legearen ezarritako  
6 hilabeteko epea zela-eta; izan ere, eskabide-  
epea ez zen arren, garrantzitsua baitzen adierazi-  
tako Plan Teknikoa lantzeko).

Ondoren eta Radio Television Navarra erakun-  
dea eratu ondoren, emakida eskatu zen berriro  
ere eskakizun guztiak betez, 1985eko azaroaren  
15eko Akordioaren bidez.

Edonola ere, Nafarroari Hirugarren Katea ema-  
kidatzen dion Errege dekretua ez da inoiz landu,  
eta 1989tik aurrera, Erakundea eratzeko legea  
eten zenean, eskatu ere ez du egin.

5.- Foru Gobernuak Parla-  
mentu honen esku jarriko al du Nafarroako hirugarren katea abiaraz-  
tearena, horri buruzko beste ezeri ekin baino  
lehen?

1989rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren  
maiatzaren 2ko 3/1989 Foru Legearen lehen  
xedapen gehigarriak irailaren 27ko 16/1985 Foru  
Legearen indarraldia eten zuen, eta horren ondo-  
rioz Erakundearen organo guztiak ezabatu zituen  
eta, horretaz gain, etorkizunean Radio Television  
Navarrak izan zezakeen jarduteko aukera derrigo-

rrerz Parlamentuan Foru Lege berria onestea eskatuko lukeela ezarri zuen.

Horrenbestez, gaur egungo esparru juridikoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko Hirugarren Kate publikoari buruzko edozein kudeaketak dagokion izapidatzea jarraitu beharko du Nafarroako Parlamentuan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 19an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## RTVEren zentroaren programazio-orduak zabaltzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak RTVEren zentroaren programazio-orduak zabaltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Tele-Navarrako programazio-orduak zabaltzeala ez zabaltzeari dagokionez duen informazioari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Tele-Navarraren orduak gehitu ala ez gehitzeari buruz zer berri duen Nafarroako Gobernuak.

1997ko joan den abenduan Radio Televisión Española Erakunde Publikoa Nafarroako Gobernuari zuzendu zitzaion Nafarroako Lurralde Zentroaren berriazko programazioa zabaltzea ahalbidetzen zuen Lankidetzaren Hitzarmena gauzatu ahal izateko aurrerapausoak emateko, lehendik ere Foru Gobernuak berak hala eskatuta.

Ildo honetan, RTVE beste hainbat autonomia erkidegori ere zuzendu zaie.

2.- Zein da Gobernuaren jarrera Tele-Navarraren programazio-orduak gehitu ala ez gehitzeari dagokionez.

Nafarroako Gobernuak, beste zenbaitetan ere adierazienez, Foru Komunitatearen balio kulturalak, historikoak, sozialak eta linguistikoak sustatzea dakarren edozein ekimeni laguntza eskainiko dio, gizarte-komunikabideen bidez oro har, eta telebistaren bidez, bereziki.

Ildo honetan, RTVErekin akordio bat negoziatzen ari da RTVE bera titularra den telebista-kateetan emititzen den eskualdeko programazioa zabaltzeko formula zehatzak ahalbidetzeko.

3.-Programazio-gehikuntza egitekotan, gainera zer kostu aurreikusten duen Nafarroako Gobernuak, eta zer ordu-tarte betetzen saiatuko litzatekeen.

Une honetan, oraindik ez da erabaki Nafarroako Gobernuak TVEko Lurralde Zentroaren finantzaketan jarriko duen zenbatekoa. Orduetegiari dagokionez, nazio-mailako programazioaren plangintza egokia ahalbidetzeko deskonexioak dagozkion Akordioak izenpetzen dituzten Autonomia Erkidego guztietan aldi berean gertatzea komeni denez, ondokoak dira deskonexioa gauza daitekeen orduetegiak ondokoak dira:

- TVEko lehen katean, astelehenetik ostiralera, biak barne, 14:00etatik 14:30ak arte.

- TVEko bigarren katean, astelehenetik ostiralera, biak barne, 19:00etatik 21:00ak arte eta larunbatean eta igandean 20:00etatik 20:30ak arte.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 19an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## Belateko tuneletako errepide zatian izandako istripuei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Xotero Etxandi Juanikotena Foru Parlamentari jaunak Belateko tuneletako errepide zatian izandako istripuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 16ko 13. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeko Xotero Etxandi Juanikotena jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Belateko tuneletako errepide zatian izandako istripuei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zeintzu dira Nafarroako Gobernuaren ustez tunelak ireki zirenetik gertatu diren istripuen egiazko arrazoiak? Egin al da ikerketa teknikorik?

Belate eta Almandozeko tunelak ireki zirenetik, inguruotako istripu-kopurua nabarmen jaitsi da lehengo istripu-kopuruarekin alderatuta. Alemaniako kamioi baten gidaria distraitu eta Belateko tunelaren ipar ahokoaren aurka jo zuen; horrez gain, urtarilean, tunelen arteko zatietan bi istripu gehiago izan ziren izotzaren eraginez. Istripu horiek kenduta, istripu larri bakarrak Oronoz-Mugairin gertatu dira, hau da, egokituriko zatitik kanpo.

Ornoz-Mugairiko istripuen arrazoia, aipaturiko herritik pasatzean ibilgailu astunek hartutako gehiegizko abiaduran datza. Abiadura, zati horretan, ezin da berrogeita hamar kilometro/orduko abiaduratik gorakoa izan.

2.- Zeintzu dira zonaldeko udalek Departamentu horretara bideratu dituzten eskaerak afera honetaz?

Ornoz-Mugaire herriak neurriak indartzea eskatu zuen, portutik Oronoz-Mugairira sartzen den trafikoaren abiadura agintzen dena izan dadin, hau da, 50 Km/ordukoa. Gainera, oinezkoak babesteko espaloiak eraikitzea ere eskatu zuen.

3.- Zer iritzi du Gobernuak eskaera horien aurrean?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua aurrera eramaten hasi da herri horrek eskatutako neurriak, ondokoak alegia:

- Gaur egungo neurriak indartzeko, baimendutako gehienezko abiadurari buruzko informazio kartelak jartzea (40 Km/orduko abiadura baino ezin da hartu orain)

- Abiadura kontrolatzeko semaforoak jartzea. Trafikoaren abiadura detektatzen dute, hau da, 40 Km/orduko abiadura errespetatu ezik, gorri jartzen dira.

- Gehienezko abiaduraren berri ematen duten argi-seinaleak jartzea. Esaterako, semaforoa gainditu duen ibilgailuak zilegi dena baino abiadura handiagoa hartzen badu, seinalea argitu egiten da, eta gehienezko abiadura zein den gogoratzen dio.

- Eskatutako espaloiak eraikitzea.

Neurri horiek Oronoz-Mugaireko gasolindegian izandako istripua izan eta berehala hartu ziren, eta martxo hasierarako bukatuta egongo dira.

4.- Bide zati honetan sortu diren arazoak proiektuak sortuak al dira?

Buruturiko proiektuak istripurik ez eragiteaz gain, lehendik gertatzen zirenak saihestea lortu du.

5.- Zer asmo du Herrilan eta Azpiegitura Departamentuak arazo tekniko hauek gainditzeko?

Ornoz-Mugairiri dagokion errepide-zatia dela eta, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua bi proiektu hauek prestatzen hasi da: alde batetik, Zozia-Sunbilla zatiarena (N-121-A); eta beste alde batetik, Oronoz-Mugairiko Sahiesbidearena (N-121-B). Proiektuoi esker, Oronoz-Mugairi, Oieregi, NARBarte eta Doneztebetik pasatzen den trafikoa saihestu egingo da.

Lanak proiektatzeko izapidea hainbat aldiz atzeratu behar izan da, inguruko Udalek eginiko eskaerei erantzuten saiatu ahal izateko.

6.- Azkenik, noiz paratuko dira hor dauden seinale guztiak euskaraz?

Aipaturiko inguruak indarreango araudiaren arabera seinalezaturik daude. Disfuntzioren bat detektatua izan den kasu jakinetan, hura zuzentzeari ekin zaio edota ekin egingen zaio.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko otsailaren 13an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## Nafarroako gasolindegietako erregai-hornigailuen neurketak ikuskatu eta kontrolatzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako gasolindegietako erregai-hornigailuen neurketak ikuskatu eta kontrolatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako gasolindegietako erregai-horniketako neurketak ikuskatu eta kontrolatzeari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari Ramón Bultó Llevar jaunaren erantzuna:

1.- Ondokoak dira Nafarroan dauden publikoari saltzeko instalazioetako automoziorako gasolinaz eta gas-olioz hornitutako zerbitzu ezderdinak:

Gasolina 97 super

Gasolina 98 berunik gabe

Gasolina 95 berunik gabe

Gas-olioa A

Gas-olioa B (hobaria nekazariarentzat)

Gas-olioa C (berokuntza)

Nafarroan 122 hornitegi eta 31 horniketa unitate erregistratuta daude. Lehenengok automoziorako gasolina eta gas-olioetako ezberdinak diren hiru produktu edo gehiago banatzen dituzte eta horniketa unitateek hiru produktu baino gutxiago.

Salmenta-puntuen kokapena Hornitegiko promotorearen aukeran dago eta erabiltzaileen beharren eskaerak baldintzatzen du, eta joera publikoari saltzeko instalazioak hiriguneen ondoan eta trafiko handiko errepideetan biltzekoa da.

2. Merkataritza eta Kontsumo Zerbitzuak, Kontsumo Atalaren bidez, ikuskapenak nazio-mailan eta eskualde-mailan antolatutako kanpainen bidez egiten ditu alde batetik, eta bestetik, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa ukitzen dituenari buruzko salaketak izaten direneko jarduketa zehazten bidez.

Kanpainetan, ikuskapenak kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera egiten dira.

182/1997 Foru Dekretua 1996an hasitako kanpainaren ondorioz argitaratu zen, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeek eta enpresarioek esan beharrekoa entzun ondoren. Bertan kontsumitzaile eta erabiltzaileen akordioak arautzen dira, eta biltzen diren aldakuntzek hobekuntza nabarmenak dakartzate kontsumitzailearentzat zerbitzuak emateari eta erabiltzaileak instalazioetan eskueran duen informazioari dagokionez, Dekretuaren artikuluetan jasota dagoenez.

3. Dagozkion foru aginduen argitalpenarekin 1996an hasitako eta 1997an amaitutako ofiziozko kanpainak ondoko emaitzak izan zituen:

Ikuskatutako gasolindegien kopurua	106
Itsatsitako mahuken kopurua	854
%0,5etik gorako desbideratzea zuten mahuken kop.	65
%0,5etik gorako desbideratzea zuten mahuken kop. probetaren errorea kontuan izanda	202
%1etik gorako erroreagatik zerbitzuz kanpo zeuden mahuken kopurua	1
%1etik gorako errorea zuten mahuken kop. probetaren errorea kontuan izanda	7
Hasiera emandako espedienteen kopurua	81
Artxibatutako espedienteen kopurua	32



Enpresarako zigorra ekarri zuten espedienteen kop.	49
%0,5 eta %1 arteko errorea zuten espedienteen kop.	22
%1etik gorako errorea zuten espedienteen kop.	1
Erabiltzailearen aldeko desbideratzea zuten mahuken kop.	42
Neurketan %0,5etik gorako erroreagatik zigortutako enpresen kopurua	23

Emaizta hauekin eta espedienteen izapidatzea oraindik amaitu gabe, 1997ko urtarrilaren 20an Nafarroako Gobernuaren Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren Merkataritza eta Kontsumo Zerbitzuak eta Nafarroako Hornitegi-tako Enpresarioen Elkartek hornitegi-tako kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak arautu eta indarrean dauden arauen interpretazio eta hobekuntzari buruzko bederlatzi alderdi zehaztea erabaki zuten.

Adierazitako akordioak ekainaren 30eko 182/1997 Foru Dekretua argitaratzea ekarri zuen.

1997an, Kontsumo Atalak ez zituen landa-ikuskapenik egin ekainaren 30eko 182/1997 Foru Dekretua argitaratu zen arte, eta oraindik ere izapidatzen ari ziren espedienteak bazeudela kontuan hartuz, ez zitzairen iruditu halakorik egitea egokia zenik. Dekretuaren ondoren, Xedapen Iragankorrek ukitutakoek beren instalazioak ezarritakora egokitzeko epeak adierazten ditu.

1998an Kontsumo Atalak egin beharreko ikuskapen-kanpainaren barruan "Gasolindegiei" dago-kiena agertzen da, otsailan hasia programatuta dagoen kanpaina, hain zuzen ere.

4.- Nafarroako Gobernuak, 1996ko urtarrilean hasitako eta 1997ko martxoan amaitutako ikuskapen-kanpaina zela-eta, izandako eta antzemanda-ko irregulartasunen berri izan zuen ikuskapen-

akten bidez. Horren guztiaren ondorioz, 49 enpresa zigortu zituzten, eta horietako 23k neurketan %0,5etik gorako erroreagatik jaso zuten zigorra. 23 gasolindegiei zegozkien zigorren zenbatekoa 3.410.000 pta izan zen.

Horniketa-zerbitzu okerrekoak zerbitzuan zeuden 65 mahuketan gertatu dira. Hortaz gain, kontsumitzailearentzat informazio-iragarkien ezagatik, erreklamazio-orrien ezagatik eta abar ere zigorrak jarri ziren.

Horren guztiaren berri, derrigorrezkoa denez, Kontsumo Ikuskaritzak bere aktak Instrukzioko Epaille Legelari igortzen dizkionetik izan zen; honek dagozkion zigorrak proposatzen dizkio Kontseilariari edo Zuzendari Nagusiarri, eta horien emaitza lehen adierazitako zigorrak izan ziren.

Foru Komunitateko Administrazioak lehendik ere jakinarazi zizkion Nafarroako Hornitegi-tako Enpresarioen Elkarteari kanpaina ikusitako akatsak, epe laburrean beste kanpaina bati ekinen ziola ohartaraziz, akatsak zuzendu ote zituzten ikusteko eta ekainaren 30eko 182/1997 Foru Dekretua zenbateraino betetzen zen egiaztatzeko.

5. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, legezko metrologiaren ardura-dun den Industri Segurtasunerako Zerbitzuaren bidez, Foru Komunitatean dauden Hornitegi-tan ikuskapenak egiten jarraitzeko asmoa du, metrologia- eta metroteknia-arloetan indarrean dagoen araudia betetzeari buruzko edozein desbideratze posible sailkatzeko.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## “Dirulaguntzak nekazaritza sindikatueterako” aurrekontu kontusailaren egoerari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak “Dirulaguntzak nekazaritza sindikatueterako” aurrekontu kontusailaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Inmaculada Matias Angulo Foru Parlamentari andreak galdera egin du “dirulaguntzak nekazaritza-sindikatueterako” aurrekontu-kontusailari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Aurrekontu Orokorren Proiektuan “Dirulaguntzak Nekazaritza Sindikatueterako” izeneko aurrekontu-kontusaila dago, 29610-8 lerroa, 20 milioi pezetaz hornitua.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren urriaren 6ko Foru Aginduaren bidez (1.997ko urriaren 27ko NAO, 129 zk.) Nekazaritza

Sindikatueterako dirulaguntzen ematea arautu zen, Nekazaritza Erakunde Profesionalek bildu behar dituzten baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta adierazitako dokumentazioa aurkezteko epea ezarri.

Epe horren barruan, Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra sindikatuak eta EHNE Nafarroak eskabidea aurkeztu zuten.

UAGNek 1.997ko urriaren 6ko Foru Aginduak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu zuen, eta EHNE Nafarroak ordea, ez zuen eskatutako dokumentazioa aurkeztu arestian adierazitako Foru Aginduko 4. artikularen a), b), c) eta f) idazatietan.

Horrenbestez, ezarritako eskakizunak Nekazaritza erakunde profesional bakar batek betetzen dituzenez, 1997ko abenduaren 15eko zegozkion bi Foru Aginduen bidez, batean 20 milioiko dirulaguntza ematen zaio UAGNri eta bestean EHNE Nafarroari dirulaguntza ematea gaitziritzen da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 19an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martinez Alfaro



## Potasas de Subizako meategi zaharraren lurretan gertatutako lur-jausiari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Potasas de Subizako meategi zaharraren lurretan gertatutako lur-jausiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco "Nueva Izquierda" alderdiko Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Potasas de Subizako meategi zaharraren lurretan gertatutako lur-jausiei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak 98-01-10eko Diario de Navarra egunkariaren informazioaren bidez soilik izan zuen lubiziaren berri. Adierazitako informazioaren arabera lubizia abenduaren 22tik 23rako gauean gertatu zen arren, gure Departamentuan ez da inolako salaketarik edo informazio-eskaerarik aurkeztu.

2. Gure Departamentuko tekniko batek 1998ko otsailaren 3an ikusitako zonak erortzeak ditu eta NA-111 errepideko eskuineko aldean kokatuta dago, Logroñorako norabidean, eta gutxi gorabehera 12,800 kilometro-puntuan hasten den lursail-kontzentrazioko bide bat ukitzen du, arrail eta

lurraren higadura erlatiboekin, gutxi gorabehera Iparraldeko norabideko orientazioaz. Ukitutako lursaila Undianoko meazuloaren lan abandonatuen hegoaldeko mugatik oso hurbil dago. Lan hauek, erortze kontrolatuarekin labar luzeen bidez burututakoak, ez dute bi metrotik gorako tartea ustiatu, eta lurraren berezko harrotzea eta lanen estaltzeak, gutxi gorabehera 500 metrokoa, ezin dute kasik ikus daitekeen seinalerik utzi nekazaritzarako lurretan. Bai ordea zerbitzutik kanpo geratzeko moduko arrail eta higadurak eragin ditzaketen eraikin edo azpiegiturretan.

Posible da zonako isurketa-ura iragazi eta lan abandonatueterako bidea aurkitu izana, eta hala balitz, meatokiko ustiatu gabeko gatzen disoluzioak erortze garrantzitsuak eragiteko behar adinako tamainako zuloak eragin ditzake, eta hori guztia zonaren aurretiazko ikerketa geologikoak baino ez luke argituko.

Dena den, landatze-lurraren erortze eta arrailadura ez da garrantzitsua eta ez du eraginik zerealaren produkzioan. Uzta-makinak eta traktoreak zailtasunik gabe pasako dira landatutako zonatik, eta erortzeak aurrera egiten ez badu, erabateko segurtasunez burutu ahal izanen da.

Lursail-kontzentrazioko bidea 500 m izan ditzakeen tartean konpondu beharko da.

3. Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak ez du ukitutako nekazariak egin ahal izan dituzten erreklamazioen berri.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

## Alokairuko etxebizitzei eta errentariak ordaintzen dutenari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak alokairuko etxebizitzei eta errentariak ordaintzen dutenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 10eko 12. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldean den "Nueva Izquierda" alderdiko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Alokairuko etxebizitzei eta errentariak ordaintzen dutenari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zenbat etxebizitza daude Nafarroan alokairuan, eta zenbat daude udal bakoitzean, aintzat harturik soilik 2.000 biztanletik gora dituztenak?

1991ko etxebizitza-eroldaren arabera, Nafarroan 202.228 etxebizitza zeuden, horietatik 153.532 lehenak ziren eta 48.696 ez ziren lehenak.

Horietatik, 19.567 alokairuan zeuden (14.523 lehenak ziren eta 5.044 ez ziren lehenak); ugazabek, lantegiek, pertsonak edo erankundeek dohainik edo erdi dohainik emandakoak, 5.970; jabetzakoak 168.276; eta beste era batera erabilitakoak, 4.791.

Alokairuan dauden etxebizitzak 2.000 biztanletik gorako udalerrietan (1991ko errolda):

Udalerria	Guztira	Nagusiak	Nagusiak ez direnak
Ablitas	35	32	3
Altsasu	306	266	40
Andosilla	24	20	4
Antsoain eta Berriozar	270	214	56
Aranguren	25	20	5
Arguedas	21	20	1
Azagra	81	60	21
Barañain	453	299	54
Baztan	437	364	73
Beriain eta Galar	69	56	13

Buñuel	68	57	11
Burlata	509	411	98
Caparroso	22	17	5
Zarrakastelu	78	73	5
Cascante	69	58	11
Castejón	248	241	7
Zizur (Cendea eta Zizur)	279	162	117
Corella	200	177	23
Cortes	70	63	7
Etxarri-Aranatz	38	26	12
Eguesibar Mendillorri gabe	23	23	0
Elorz	90	70	20
Lizarra	469	393	76
Falces	119	115	4
Fitero	44	41	3
Funes	27	25	2
Fustiñana	33	33	0
Uharte	94	85	9
Irurtzun eta Arakil	57	41	16
Leitza	84	81	3
Lerín	24	24	0
Lesaka	169	139	30
Lodosa	98	86	12
Marcilla	43	41	2
Mendavia	36	33	3
Milagro	32	29	3
Murchante	57	55	2
Erriberri	45	43	2
Iruña	9.814	6.622	3.199
Azkoien	181	158	23
Gares	69	58	11
Ribaforada	51	49	2
San Adrián	153	144	9
Zangoza	98	95	3
Tafalla	487	398	89
Tutera	1.244	948	296
Valtierra	33	20	13
Bera	154	140	14
Viana	174	170	4
Alesbes	91	81	10
Atarrabia	223	128	95

2. Alokairuan dauden etxebizitza horietatik, zenbat dagozkio lehengo legeri, eta ondorioz zenbatek dituzte errenta zaharrak?

1994ko Hiriko Alokairuen Legeak dioenez, 1995eko lehen hiruhilekoan alokairuei zegozkien kontratuak erregistratu egin behar ziren, Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioan errolda bat egiteko. Nafarroan 2.406 erregistratu ziren; alokairuan zeuden etxebizitzaren kopurua kontuan hartuta, badirudi oso kopuru txikia dela, eta hala xe baieztatu zuen 1995ean Etxebizitza eta Arkitektura Ministerioko Zuzendari Nagusiak, Espainian existitzen ziren alokairu-kontratuen %25 besterik erregistratuta ez zegoela aditzera eman zuenean.

3. Diruz lagunduriko errentak alde batera utzita, batez beste zenbat ordaintzen dute Nafarroako errentariek metro koadroko?

1995, 1996 eta 1997ko urteetan (edota aipaturiko urteen zati batean) indarrean egon diren 1.300 kontratuetan oinarrituta, ondoko taula lortzen da:

Hileko alokairua	10.000 pta bitartean	75 kontratu
"	10.000 eta 25.000 pta bitartean	223 kontratu
"	25.000 eta 50.000 pta bitartean	480 kontratu
"	50.000 eta 75.000 pta bitartean	411 kontratu
"	75.000 eta 100.000 pta bitartean	91 kontratu
"	100.000 eta 200.000 pta bitartean	20 kontratu

Babes Ofizialeko etxebizitzaren kasuan, eta kasu bakan batzuk salbu, hilean alokairuan zegoen etxebizitzaren prezioa metro koadro erabilgarri bakoitzeko, dirulaguntzak kenduta, hauxe da, 1998ko urtean:

	Araubide orokorra	Araubide berezia
Iruñerria	495 pta	454 pta
Nafarroako gainerakoa	452 pta	414 pta

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 19an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutuan dagoen langile-kopuruari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutuan dagoen langile-kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak galdera egin du Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutuan dagoen langile-kopuruari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutuak ondoko matrikula du aurtengo ikasturtean:

- G ereduko 345 ikasle
- A ereduko 50 ikasle
- D ereduko 111 ikasle

Bi atezain ditu gaur egun (D maila), eta horietako batek euskara-eskakizuna betetzen du. Institutua handitzeko lanak amaitu ondoren, 1999ko amaierako aurreikusitakoak, Zentro honi betezeko hirugarren lanpostu bat emanen zaio, beharrezkoak dela egiaztatzen bada, bai atezaina (D maila) bai menpekoa (E maila) izan daitekeena.

Hirugarren lanpostu hau betezea, dagokion maila eta hizkuntza-eskakizuna Departamentu honen proposamenez hasitako pertsonal ez-irakaslearen beharrei buruzko azterlan aztertu ondoren erabakiko da; azterlan honen helburua Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko Ikastetxe Publiko guztietako administrazio eta

zerbitzuetako pertsonalaren plantilak behar bezala dimentsionatzea da.

2. Gaur egun Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutura adskribatutako atezain-lanpostuek ondoko ezaugarriak dituzte;

Lanpostu-zk.: 35837

Izendapena: atezaina

Hizkuntza-eskakizuna: euskara

Titularra: Puy Ecay Sanz andrea

Betetzeko era: Oposizio-lehiaketa, Funtzio Publikoaren eta Antolaketaren Zuzendari Nagusiaren 1996ko apirilaren 22ko Ebazpenaren arabera eginikoa.

Lanpostu-zk.: 35828

Izendapena: Atezaina

Hizkuntza-eskakizuna: gaztelera

Titularra: Manuel Suárez Ávila jauna

Betetzeko era: Lanpostuak Betetzeko Erregelamenduaren 4.3. artikulua (azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua)

Ezaugarriak: Ikastetxearen alboko etxebizitzan bizitzeko obligazioa.

3. Hirugarren lanpostua Batxilergo eta Lanbide Heziketako heziketa-zikloetarako eraikina handitzeko obrak amaitu eta Ikastetxearen beharrak aztertu ondoren beteko da, edo lehenago, 1. puntuari aipatutako beharren azterlanak hala eskatzen badu.

4. Erantzun honetako 1. eta 3. puntuetan erantzun zaio.

5. Ikastetxeko zuzendaria, indarrean dagoen araudiaren arabera dagozkion eskumenen jardunean, ondoko idatzien bidez zuzendu zaio Departamentu honi:

– 1997ko irailaren 30eko datarekin, Enrique Jaurrieta Linzoian jauna Giza Baliabideen Zerbitzuaren Zuzendariari zuzendu zitzaion ondokoa adieraziz; Zizur Nagusiko Institutuari atezain-lanpostu bat esleitu bazaio ere “kategoria honetan bete beharreko lanpostuen aurreikuspena bikoa da (horietako bat Institutuaren alboko etxebizitzarekin), Ikastetxearen ezaugarriak eta matrikulatutako ikasle-kopurua kontuan izanda. Hori guztia kontuan hartuta atezain izateko bigarren lanpostua lehenbailehen betetzea eskatzen dut, kontratazio hori aurtengo ikasturterako ezinbestekoa denaren ustetan..”

Adierazitako idatzian ez du eskatzen lanpostuak hizkuntza-eskakizun jakinik izatea.

1997ko urriaren 21eko datarekin, Enrique Jaurrieta Linzoian jaunak, Zizur Nagusiko Institutuaren zuzendari gisa idatzia zuzendu zion Hezkuntzako Zuzendari Nagusiari; bertan, berriro ere adierazten du Ikastetxerako bigarren lanpostu hutsa esleitu eta ondoren betetzeari ekiteko beharra, eta kontsulta egiten dio Administrazioari adierazitako atezain lanpostu hutsa euskara-eskakizunarekin iragartzeko beharraz, Ikastetxearen izaera elebiduna kontuan izanda. Ondokoa ere proposatzen du adierazitako idatzian; lanpostu hutsa sortu eta kontratazioari ekin aurretik Ikastetxeko Zuzendaritzari kontsulta egitea eta, posible balitz, maila eta kategoria bereko funtzionarioen bat esleitzea, bere lanpostuari dagozkion funtzioak egiteaz gain alboko etxebizitzan bizitzeko duen obligazioa ere jakinaraziz.

– 1997ko abenduaren 10eko datarekin, Enrique Jaurrieta Linzoian jaunak, Zizur Nagusiko Institutuaren Zuzendari gisa, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari atxikitako funtzionarioa den Manuel Suárez Ávila Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutura atxikitzeko proposamenarekin bere adostasuna adierazten zuen.

– 1997ko abenduaren 18ko datarekin, Enrique Jaurrieta Lizoain jaunak, Ikastetxeko Eskola Kontseiluaren buru gisa, “atezain elebakarra bidali izanari eta esleipenaren atzerapenari buruzko azalpenak” eskatzen dizkio Hezkuntza eta Kultura Departamentuari. Adierazitako idatzian, eta Eskola Kontseiluaren bozeramaile gisa ondokoa ere adierazten du: “Atezain elebiduna eskatzen jarraitzen dugu”.

Adierazitako idatziak 1997ko abenduaren 19an izan zuen irteera-erregistroa Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institututik.

Honi buruz eta Giza Baliabideen Zerbitzuari eginiko kontsulten arabera, ondokoa ere adierazi behar da; 1997ko abenduaren 17ko datarekin Enrique Jaurrieta Lizoain jaunari Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutura atxikitako etxebizitzan bizitzeko obligazioa barne hartzen duen atezain-lanpostua betetzeari buruzko txostena igorri zion, hala bazegokion Eskola Kontseiluari eta Ikastetxeko Gurasoen Elkarteari jakinara ziezaion.

6. Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutuaren Zuzendaritzak ez du atezaineko bigarren lanpostuaren esleipena geldiarazi; erreferentziazko lanpostua Manuel Suárez Ávila jaunak bete zuen, hain zuzen ere. 1997ko urriaren 21ean igorri zuen idatzian barne hartutako proposamenak lanpostu hori betetzea atzeratu egin zuen, eta

ezin izan zen 1997ko abenduaren 17ra arte bete, 1997ko abenduaren 10eko datarekin ikastetxearen Zuzendari gisa eman zuen adostasunaren ondoren, izan ere lanpostua funtzionario batek betetzea eskatu baitzen.

Bestalde, Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntza-ko Institutuaren Zuzendariak etengabeko informa-

zioa izan du erreferentziarako espedientea une bakoitzean zegoen egoerari buruz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 12an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Arga ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketek garapenari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Arga ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketek garapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Arga ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketek garapenari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

Arga, Ultzama eta Mediano ibaien arroetan salmonidoen arrantza antolatzeko plana 1996ko abenduaren 16an onetsi zen 672 Foru Dekretuaren bidez. Iraunaldi mugagabea duen adierazitako planak berrazterketa orokorra ezartzen du indarrean sartu eta 8 urtera.

Gaur egun, onetsi zenetik urtebete igaro denean, Plana bere aplikazioaren hasieran dago. Galdera guztiak adierazitako planak Arga ibaian izandako jarduketei buruzkoak direnez, galdera horiei behar den bezala erantzuteko nahikoa izanen da gure ustez adierazitako plana garatzeko orain arte burutu diren jarduketak gogoraraztea. Ondoko jarduerak garatu dira, zehazki:

– Bada Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eta Ebroko Ur Konfederazioaren arteko akordio-ildo bat Eugiko emariak kontrolatzeko urtegiaren, eta orain arte urhustuketek eta gutxieneko emarien behar bezala erabilera bermatzea ahalbidetu du. Neurketarako estazio bat ere bada, presatik urak behera jarraituz berehala dagoena, Ebroko Ur Konfederazioak eraikitakoa eta kontrolatua. Estazio honek ibaiaren emariari buruzko datu etengabeak eta xehe-tuak eskaintzen ditu.

– Uharkaren sakonera desberdinetan tenperatura etengabe kontrolatzen da, bai eta ibaian ere, turbina elektrikoetako hartuneetako aldaketen ondoriozko bapateko aldaketak saihesteko. Adierazitako kontrola egunero burutzen dute zentral hidroelektikoaren arduradunek.

– Termoklinak irauten duen hilabeteetan urhustuketako balbularen probak lehorrean egitea ere lortu da, Departamentuaren eta urtegiaren arduradunen arteko lankidetzak etengabearen bidez.

– Magnesitas de Navarra-ren hondakindegien azterketari hasiera eman zaio, eta horrek hondakindegia finkatzea eta arrasteak eta isurketak kontrolatzea ekarriko du.

– Bada Magnesitas de Navarra-k landutako plan bat ibai-bazterrek garbitu eta berkalibratzeko eta baso-berritzeko lanak egiteko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **Ega ibaian habitata leheneratzeko arreakusi diren jarduketak garatzeari buruzko galdera**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Ega ibaian habitata leheneratzeko arreakusi diren jarduketak garatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ega ibaian habitata leheneratzeko aurreikusitako jarduketak garatzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

Ega ibaiaren arroan salmonidoen arrantza antolatzekeko plana 1996ko martxoaren 11n onetsi zen 139 Foru Dekretuaren bidez. Iraunaldi muga-

gabea duen adierazitako planak berrazterketa orokorra ezartzen du indarrean sartu eta 8 urtera.

Gaur egun, onetsi zenetik bi urte igaro direnean, Plana bere aplikazioaren hasieran dago. Galdera guztiak adierazitako planak Urederra ibaian izandako jarduketei buruzkoak direnez, galdera horiei behar den bezala erantzuteko nahikoa izanen da, gure ustez, adierazitako Plana garatzeko orain arte burutu diren jarduketak gogoraraztea. Ondoko jarduerak garatu dira, zehazki:

- Arrainek ibaian aurkitzen dituzten oztopo desberdinen titularrak aurkitu dira eta lehen harremanak izan dira horien arteko zenbaitekin.

- Lizarrako polikiroldegiaren aldeko Ega ibaia-  
ren eskuinaldearen egokitzapen-obrak burutu eta erabat bukatu dira. Adierazitako obrak Ebroko Ur Konfederazioak egin zituen, Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiaren lankidetzaz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo



## Urederra ibaian habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketak garatzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Urederra ibaian habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketak garatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Urederra ibaian habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketak garatzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

Ega-Urederra ibaiaren arroan salmonidoen arrantza antolatzeke plana 1996ko martxoaren 11n onetsi zen 139 Foru Dekretuaren bidez. Iraunaldi mugagabea duen adierazitako planak berrazterketa orokorra ezartzen du indarrean sartu eta 8 urtera.

Gaur egun, onetsi zenetik bi urte igaro direnean, Plana bere aplikazioaren hasieran dago. Galdera guztiak adierazitako planak Urederra ibaian izandako jarduketei buruzkoak direnez, galdera horiei behar den bezala erantzuteko nahikoa izanen da gure ustez adierazitako Plana garatzeko orain arte burutu diren jarduketak gogoraraztea. Ondoko jarduerak garatu dira, zehazki:

– Enborren eta zuraren pilaketak egindako zenbait tapoi deusezteari ekin zaio, Ebroko Ur Konfederazioaren lankidetzaz.

– Uholdeen prebentziorako obrak ere burutzen ari dira Larrion dermioan. Obrak ibaiaren ezker aldean euste-tartea eraikitzean dautza, ureztalurra dagoen puntu honetan ibaiak gainezka egitea saihesteko helburuz, bai eta errepideko zubiaren aldoan dauden etxebizitzetarako duen gainezka egiteko arriskua ere saihestuz. Obrak osatzeko gaur egungo arroa zabaldu, arroan metatutako legarrak eta materialak kendu eta ondoren obrek ukitutako zona birlandatuko da.

Lan hauek guztiak otsailerako amaitzea aurreikusita dago.

– Artazako arrain-haztegitik gorako eta behe-rako urak aldizka aztertzeke programa ezarri da.

– Isurketen erregistro-liburua ezarri da dekan-tazio-urmaletako metatuen higadura kontrolatzeko.

– Osasun-kontrolerako programa ezarri da Artazako arrain-haztegiaren ingurunerako.

– Tindagaien isurketak Allindik Lizarrako araztegiara eramateko proiektua ere onetsi da.

– Arrainek ibaian aurkitzen dituzten oztopo desberdinen titularrak aurkitu dira eta lehen harremanak izan dira horien arteko zenbaitekin.

– Larriongo jarduketa-tartean birlandatzeko proiektua gauzatu da.

– Enpresa emakidadunarekin San Faustoko presan gutxienezko emariaren mantenimendurako eginiko hitzarmenak indarrean darrai.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo



## Urederra ibaiaren arroan laginketa elektrikoak egiteari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Urederra ibaiaren arroan laginketa elektrikoak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Urederra Ibaiaren arroan laginketa elektrikoak egiteari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Jakin al du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Lizarrako Ehiztari eta Arrantzaleen Elkarteak salatutako laginketa egin ote den? Baiezkoan; Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren baimenarekin egin al dira?

1997ko apirilaren 18ko datarekin, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak baimena eman zion Nafarroako Unibertsitateko Zientzi Fakultateari fauna iberiarreko espezie guztien ikerketa-lanak garatzeko. Baimen horren iraunaldia –baimenaren fotokopia eransten dugu dokumentu honekin batera– adierazitako egun horretatik 2001 urtera artekoa da. Adierazitako baimena Nafarroako Unibertsitatearen erantzukizun pedagogikoa eta zientifikoa kontuan hartuz eman zen eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak erakunde honi, bai eta antzeko helburuak dituzten gainerako entitateei ere, ikerketa errazteko duen ezinbesteko beharrean oinarrituz.

Berriki jasotako Lizarrako Ehiztari eta Arrantzaleen Elkartearen idatzi batean kexu ziren

amuarrairen populazioarekiko kontu gutxiz egindako laginketa elektriko batzuek zirela-eta, izan ere errute-zonetan sartu baitziren laginketak egitera, horrek dakarren errutelekuak suntsitzeko arriskuarekin.

Zein enpresak, entitatek edo erakundek egin zuen aipatu laginketa? Zein helburuekin? Zergatik egin da amuarraina ugaltzen den garaian?

Arestian adierazi denez, Nafarroako Unibertsitateko Zientzi Fakultatea izan zen adierazitako laginketa egin zuena. Ez dugu informaziorik adierazitako laginketak zituen helburuei buruz, ez eta zein arrazoi direla medio burutu behar izan diren amuarraina ugaltzeko garaian.

Uste al du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ingurugiroko ondorio negatiboak sortu direla ibaian eta haren faunan? Baiezkoan; aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat egitea aipaturiko ondorio horien eragina mugatzeko?

Ez dago daturik adierazitako laginketaren ondorioak ebaluatzeko. Dena den, eta jarduketaren zehaztasuna kontuan izanda, adierazitako ondorio horiek oso txikiak izanen direla pentsa daiteke. Edonola ere, udaldian urtero garatzen diren laginketek argi eta garbi adieraziko dute amuarrairen populazioaren edozein aldaketa esanguratsu.

Duela gutxi Arrantzaren Batzorde Aholku Emaileak Nafarroako Unibertsitateko Zientzi Fakultateari gaitzespen-gutuna igortzeko erabakia hartu zuen adierazitako jarduketa zela-eta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Oharra: Aipatu fotokopia Foru Parlamentariaren esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## Ingurugiro Zerbitzuak egindako ikuskapen aktei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Ingurugiro Zerbitzuak egindako ikuskapen aktei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua” Parlamentari Taldeko Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 1997 urtean jasotako ikuskapen-aktei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zenbat Ikuskapen-Akta egin ditu 1997an Ingurugiro Zerbitzuak atalez atal?

Ondoren adierazten dira Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiak 1997an eginiko ikuskapen-aktak, atalez atal xehatuta:

Zerbitzuak	Tutera	Tafalla	Lizarra	Iruña	Zentrala	Agoitz	Otsagi	Eugi	Doneztebe
Natura zaintzeko Z.									
Natur Baliabide eta Habitaten Plangintzarako Atala	2	1	3	11			2	1	14
Natur Ingurunea									
Kudeatzeko Atala	25	11	105	35			26	34	52
Ehiza eta Arrantza Atala	29	8	2	8			9	7	53
Ingurugiroaren Kalitatea									
Hondakinen Kudeaketarako Atala	13	3	6	8		6	9	5	39
Ingurugiroa Begiratzeko Atala	2	8	9	5	1		4	6	50
Ur Baliabide eta Energia Berriztagarrien Atala	3	2	5	2			1		4
Guztira (629 Akta)	74	33	130	69	1	6	51	53	212

2.- Aurrekoetatik zenbat erabaki dira eta zein emaitzarekin, atal bakoitzean?

Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiak eginiko 629 ikuskapen-aktetatik 367 espedienteei hasiera emateko ardura duen unitatea den Departamentuaren Idazkaritza Teknikoko Ingurugiro eta Hiri-gintzako Disziplinaren Atalera eraman dira. Gainerako ikuskapen-aktak, teknikoen ustez, ez dute behar adinako oinarri eta eduki juridikorik espediente bati hasiera emateko. Ildo horretan, Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiaren landa-pertsonalak ikuskapen-aktak pertsonal teknikoari edozein motako txostenak (jarraipenari, kontrolari, zaintzari eta abar buruzkoak) jakinarazteko erabiltzen dituela adierazi behar da. Hori dela-eta, ikuskapen-akta guztiek ez dakarte espedienteari hasiera ematea, araudi zigortzailea kontuan izanda.

Ingurugiro eta Hirigintzako Atalera eramandako 367 aktek ondoko jarduketak eragin dituzte, zerbitzuka xehatuta:

– Natura Zaintzeko Zerbitzua

119 espediente zigortzaileei eman zaie hasiera (39 artxibatu eta ordaindu dituzte eta 80 izapidatzekotan daude).

Arrazoi desberdinak direla medio, (alegazioak kontuan hartzea, datu berriak agertzea, espediente izan duen pertsona adin-txikikoa izatea..) artxibatu diren beste 219 espedienteei eman zaie hasiera.

– Ingurugiro Kalitatearen Zerbitzua:

16 espediente zigortzaileei hasiera eman eta izapidatzekotan daude.

Arrazoi desberdinak direla medio, artxibatu diren beste 16 espedienteei eman zaie hasiera.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Aldi batzuetan egiten diren aparteko orduetarako buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aldi batzuetan egiten diren aparteko orduetarako buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Nueva Izquierdako Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan eta bere erakunde autonomoetan egindako aparteko orduetarako buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1. 1996 eta 1997 urteetan egindako aparteko orduetarako dagokionez, Departamentuko eta mailako zerrenda ondokoa da, adierazitako aldietan enplegatuei ordaindutako nominetatik ateratakoak:

### 1996 URTEA

DEPARTAMENTUA	MAILA					GUZTIRA
	A	B	C	D	E	
Lehendakaritza eta B.	250	127	2.902	13.096	1.290	17.665
Ekonomia eta Ogasuna	0	218	768	259	2.232	3.477
Toki Administrazioa	0	3	5	0	0	8
Lurraldearen Antolamendua	170	41	543	924	125	1.803
Hezkuntza eta Kultura	696	205	264	727	342	2.234
Osasuna	413	884	1.248	1.788	808	5.141
Herrilanak	91	2.135	2.432	6.190	3.736	14.584
Nekazaritza	300	27	8	827	772	1.934
Industria	40	0	57	0	0	97
Gizarte Ongizatea	0	92	112	230	138	572
Guztira	1.960	3.732	8.339	24.041	9.443	47.515

## 1997 URTEA

MAILA						
DEPARTAMENTUA	A	B	C	D	E	GUZTIRA
Lehendakaritza eta Barne	785	244	2.462	17.462	1.033	21.986
Ekonomia eta Ogasuna	132	40	110	135	2.052	2.469
Toki Administrazioa	4	0	0	0	0	4
Lurraldearen Antolamendua	178	0	427	972	74	1.651
Hezkuntza eta Kultura	572	425	647	730	500	2.874
Osasuna	349	744	691	1.122	537	3.443
Herrilanak	216	3.974	9.080	13.155	6.118	32.543*
Nekazaritza	155	13	0	1.118	586	1.872
Industria	50	53	0	0	0	103
Gizarte Ongizatea	0	35	194	36	50	315
<b>Guztira</b>	<b>2.441</b>	<b>5.528</b>	<b>13.611</b>	<b>34.730</b>	<b>10.950</b>	<b>67.260</b>

\* 1997an ordaindutako Departamentu honetako aparteko orduen guztirakoaren %30 1996an aurrekontu-esleipenik ezagatik urte horretan ordaindu ezin izan ziren orduei dagokie.

2. Foru Komunitatearen Administrazio osorako guztirako datuak alderatuz gero –azken bost urte-otakoak (93tik 97ra) alderatu ere–, eta kontuan hartuz gero aparteko orduen kontzeptupean ordaindutako diru-kopuruak –urtez urte banakatuak–, hurrengo emaitzak ateratzen dira:

URTEA	Ordaindutako diru-kopurua Aparteko orduak	Ordaindutako aparteko orduen kopurua
1993	93.803.196	62.031
1994	115.928.065	67.689

1995	105.778.230	65.350
1996	83.746.687	47.515
1997	120.680.200	67.260

Hori guztia jakinarazi dizut Ganbarako Erregelamenduaren 181. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## Ziordiko lurrazpiko pasabidearen eta Ziordia eta Olaztiren arteko loturaren arazoari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Úriz Lanz Foru Parlamentari jaunak Ziordiko lurrazpiko pasabidearen eta Ziordia eta Olaztiren arteko loturaren arazoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Pedro Úriz Lanz Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Sakanako Autobiako hainbat obrari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak egin al ditu txosten tekniko eta juridikoak, irizpide objektiboekin, Ziordiko lurrazpiko pasabidearen eta Ziordia eta Olaztiren arteko loturaren arazoa konpontzeko, Parla-mentuak agindu bezala?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, Nafarroako Parlamentuak agindutakoa betez, Ziordiak Sakanako Autobiarekin dituen lotura eta bidegurutzei buruzko kanpoko txosten teknikoa egitea agindu du.

Adierazitako txostena horretan aditua den teknikari bati agindu zaio Nafarroako Bide, Ubide eta Portu Injineruen Elkargo Ofizialaren bidez.

2.- Ziordiko lurrazpiko pasabidearen eta Ziordia eta Olaztiren arteko loturaren arazoa konpontzeko irtenbiderik egokiena eta teknikaren aldetik onargarriena zehazteko bidean al dago, Parlamentuak agindu bezala?

Aurreko idazatian adierazitakoaren jarraipen gisa, irtenbiderik egokiena eta teknikaren aldetik onargarri eta objektiboena zehazteko bidean gaudela esan dezakegu; adierazitako irtenbidea eska-

tutako kanpoko txosten teknikoan gutxi barru adieraziko denean oinarrituz ezarri beharko da.

3.- Baiezkoan, zein dira egindako proposamen eta irtenbideak?

Ezezkoan, noizko izanen ditu idatziak Herrilan Departamentuak?

Adierazi den bezala, eskatutako kanpoko txostena gutxi barru ematearen zain gaude, dagozkion erabakiak hartu ahal izateko.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## **Ablitas-Tutera errepidea zabaltzeko obren atzerapenari buruzko galdera**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak Ablitas-Tutera errepidea zabaltzeko obren atzerapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko Inmaculada Pinilla Baigorri Foru Parlamentari andreak galdera egin du Ablitas-Tutera errepidea zabaltzeko obrei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein da aipatu errepideko obren atzerapenaren arrazoia?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren urriaren 23ko 4504/1997 Foru Aginduaren bidez “Tutera-Ablitas errepidearen egokitzapen eta hobekuntzako” obren kontratazio-espeditentza onetsi zen, 359.672.190 pezetako aurrekontuarekin eta obrak burutzeko 14 hilabeteko epearekin.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren abenduaren 22ko 5278/97 Foru Aginduaren bidez, adierazitako lanen esleipena onetsi zen.

Esleipena enpresa esleipendunari jakinarazten zaionetik, enpresak hilabeteko epea du kontratua izenpetzeko, eta 7 egun gehiago ditu Egiatzapen eta Zuinketa Akta izenpetzeko, eta egun horretatik aurrera obrak egiteko epearen kontratuzko hasiera ezartzen da.

2.- Noizko aurreikusi du Gobernuak aipatu errepideko zabaltze-lanak hastea?

Kontratua izenpetu berri da, eta horrenbestez hurrengo 7/10 egunetan ekin beharko zaie lanei.

3.- Zein enpresari esleitu zaizkio lanak?

Kasu honetan enpresa esleipenduna Enpresen aldi baterako batasuna izan da, INDASA eta Excavaciones y Transportes Río Valle-k osatutako, 244.577.089 pezetako zenbatekoagatik eta 9 hilabeteko burutzeko epearekin.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 15ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## Arratsalde zerbizua ematen duten osasun zentroi buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentari andeak arratsalde zerbizua ematen duten osasun zentroi buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 10eko 12. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko Francisca Catalán Fabo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du arratsalde zerbizua ematen duten osasun zentroi buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

Hasierako planteamendua: "komunikabideetan berriki agertu da Iruñean zerbizua arratsalde ematen duten osasun etxeak gainezka daudela".

Arratsaldeko zentroetan ez da saturazio berezirik izan.

Gripe-epidemiak iraun artean, osasun etxeak gainezka egon dira ohizko ordutegian, baita arratsaldeko larrialdi zentroak eta ospitaleko larrialdi zerbizuetan ere.

Arratsaldeko larrialdi zentroetan, hain zuzen, sorospenek %86ko gorakada izan dute bi astetan.

1. Gobernuaren ustez, zer eragin izan du osasun etxeak arratsalde ixteak, Larrialdietarako Plan berria ezartzearen ondorioz?

Ondoko kopuru objektiboei lotzen natzaie:

1. Zainketa Berezien Unitate higikorren parte-hartzeak.

– Iruña (A-199)..... 4,36 irteera/egunean

- Abisua jaso eta 7 minutu 40 segundutan iristen da gertaera-lekura.

- Metropoli-barrutira eta eskualdera ezezik, Lekunberri, Tafalla eta Zangozara ere irteerak egiten ditu.

– Tuter (A-197) ..... 1,22 irteera/egunean

- %40 ospitale arteko bigarren mailako lekualdatze larriak dira.

– Lizarra (A-198)..... 1,11 irteera/egunean

- %47 ospitale arteko bigarren mailako lekualdatze larriak dira.

2. Lekualdatzeak Anbulantzia medikagarrien bidez

Lagunduriko lekualdatzeak 10 eta 15 artean dabilta hilean. Salbuespenezko egoerarik ez dago hor sartuta (Uharte-Arakilgo istripua).

3. Medikaturiko helikopteroa

Batez beste, ekintza 1 burutu du hilean.

Ospitalearteko lekualdatze bat edo beste sariturik dago hor, gure Komunitatetik kanpora egin da, hura lurreko anbulantziak egiterik ez zegoelako.

4. Iruñeko SEU (arratsaldeko zentroak barne)

	Bisitak	Med/eg.	Ped/eg.	Eri/eg.
• Solchaga anbulategia (ordutegia: 15etatik 8etara, 24 ordu jaiegunetan)		65,6	13,7	88,4
• Zentroak itxi aurretiko zenbatekoak		48,4	–	81,7
• Ermitagañako zentroa		18,8	11,6	13,8
• Errotxapeako zentroa		17	–	7
• Burlatako zentroa		14,5	–	8,9

Zentroak ixteaz gain, pediatrian ospitale zentroko larrialdiak ireki direla ere gehitu behar da, zerbiztu hori ez baitzegoen lehen, eta epidemiak iraun artean bi horiek jasan dute asistentzia-presiorik handiena.

Gainera, zentroak itxi direnetik, ez da somatu eskaera-gorakadarik, ez ospitaleko larrialdi zerbizuetan ez SOS Nafarroa delakoan ere, gripe-epidemian izan ezik.

2. Esan daiteke planak porrot egin duela hil ala biziko larrialdiak ez direnei dagokienez?

Ez dakit zein parametroren arabera hitz egiten den porrotari buruz. Jarraian zehaztuko ditudan adierazleak, nire iritziz, guztiz arrazoizkoak dira; eta porrota baino, plan zuzen, premiatsu, eraginkor eta ona ematen dute aditzera.

Osasun etxeetan ontzat ematen da 5 edo 10 minutu igarotzea kontsultza bakoitzean. Arratsaldeko zentroetan, batez beste, sendagile orokorrari dagozkion 16,77 larrialdi hutsal hartzen dira egu-



nean, hau da, 17 minututik gora larrialdi bakoitzeko.

Solchagan teorikoki gerta zitekeen gorakada hauxe baino ez da izan: sendagile orokorrari dagokionez, 17 larrialdi egunean; eta erizaintzari dagokionez, 7.

Gaur egun, egunean gutxi gora-behera 116 larrialdiz arduratzeko, 8 mediko orokor erabiltzen dira (14,5 larrialdi horietako bakoitzeko).

Arratsaldeko zentroak irekita zeudenean, egunean goardiako 10 mediko erabiltzen ziren herri bereko larrialdi hutsalei erantzuteko. Beraz, larrialdi hutsaletarako zentroak itxi direnetik, administrazioak, hilerro-hilerro, 8 milioi pezetatik gora aurrezten du.

Bien bitartean, Zainketa Berezien Unitate Higikorren funtzionamenduari esker eta Anbulantzia Medikagarrien bidez eginiko lekualdatzeei esker, pertsona askoren biziak salbatu direla esan daiteke (100 pertsonaren biziak, hain zuzen; hau da, ekintzen %20 hil edo bizikotzat bakarrik hartuta).

3. Nola konponduko ditu Gobernuak hori bezalako egoerak aurrerantzean?

Kontua ez da ea aurreikusita dauden; baizik horiek etengabe abian jartzen direla, beharrezkoa den guztietan.

Nire ustez, askoz eraginkorragoa da horren beharra duen zentroa indartzea, behar den denboraz, ezen, urte osoan ezertarako balio ez duen dispositiboari eusteak baino, urteroko gripe-epidemiarren kolapsoa saihestuta ere.

Egun hauetan, SOS Nafarroa, Solchaga-ko SEU delakoa eta osasun etxerik gehienak indartu dira; Lumbierreko zaharren egoitzan ere laguntza berezia jarri da.

Azkenik, gogoratu behar da, ezen, gripea urteroko epidemia masiboa dela, eta ezer gutxi egin daitekeela asistentziaren aldetik. Hori dela eta, sorospen etxeak gainezka jartzen dira urte guztietan, larrialdietarako arratsaldeko zentroak irekita egon ala ez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 17an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto



## Tafallako Osasun Etxearen ginekologi zerbitzuari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Francisca Catalán Fabo eta M<sup>a</sup> José Pérez de Eulate Urrea Foru Parlamentari andreek Tafallako Osasun Etxearen ginekologi zerbitzuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 16ko 13. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko Francisca Catalán Fabo eta M<sup>a</sup> José Pérez de Eulate Urrea andreek idatziz erantzuteko galdera egin dute Tafallako Osasun Etxearen ginekologi zerbitzuari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1997ko udaz geroztik, Tafallako Osasun Etxearen Ginekologi Zerbitzuaren itxaron zerrenda ondoan azaltzen den bezala antolaturik dago: alde batetik, azterketa ginekologikoak egin behar dituzten emakume osasuntsuak zerrenda batean biltzen dira (Gine-prebentzioa); eta beste alde batetik, arazo patologiko ginekologiko guztiak biltzen dira beste zerrenda batean (Gine-patologia).

Patologiari lehentasuna ematearren egiten da halako banaketa, prozesu patologiko ginekologikoak oro ahal den azkarren tratatuak izan daitezzen.

Patologiarik daukaten gaixoen txartelak edota Oinarrizko Laguntzaren medikuaren iritziz aurretik (lehentasunez) aztertuak izan behar direnak, Ginekologia-aditu fakultatiboek baloratu eta 15 egun baino lehen zita ematen diete.

Emakume osasuntsuendako azterketa ginekologikoa eskatzen duten txartelak (kontsulta prebentiboa) Gine-aurreikuspenaren itxaron zerrendan biltzen dira (gaur egun, urtebete ingurukoa). Eskura dagoen ebidentzia zientifikoaren arabera, paziente osasuntsuei egin beharreko azterketa ginekologikoak 2 edo 3 urtean behin egin behar dira (erriak zenbat urte dituen); beraz, hori kontuan harturik, itxaron denbora erabat arrazoizkoa dela uste dut. Azkenik, itxaron zerrendaren gaindimentsionamendua ere kontuan hartzekoa da, zeren, oro har, erria aztertu eta gero, berriro ere jartzen baita itxaron zerrendan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## Kontrapasaren inguruko administrazio-espeditatearen egoerari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak kontrapasaren inguruko administrazio-espeditatearen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du kontrapasaren inguruko administrazio-espeditatearen egoerari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein fasetan dago kontrapasa deritzon ehiza-jarduera Nafarroan egin daitekeen ala ez justifikatzeko administrazio-espeditatea?

2. Zein egutegi jarri da kontrapasa deritzon ehizan aritzea bidezko eginen duen basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru Legea aldatzeko lege proiektua burutzeko?

1998ko otsailaren 9ko datarekin, Nafarroako Gobernuak kontrapasako ehizaren onspenerako Foru Legearen proposamena onetsi eta Nafarroako Parlamentura izapidatzeko igorri zuen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Ultzama ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketaren garapenari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Ultzama ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketaren garapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ultzama ibaiaren habitata leheneratzeko aurreikusi diren jarduketaren garapenari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

Arga, Ultzama eta Mediano ibaien arroetan salmonidoen arrantza antolatzekeo plana 1996ko abenduaren 16an onetsi zen 672 Foru Dekretuaren bidez. Iraunaldi mugagabea duen adierazitako planak berrazterketa orokorra ezartzen du indarrean sartu eta 8 urtera.

Gaur egun, onetsi zenetik urtebete igaro denean, Plana bere aplikazioaren hasieran dago. Galdera guztiak adierazitako planak Ultzama ibaian izandako jarduketei buruzkoak direnez, galdera horiei behar den bezala erantzuteko nahikoa izanen da gure ustez adierazitako plana garatzeko orain arte burutu diren jarduketak gogoraraztea. Ondoko jarduerak garatu dira, zehazki:

– Danone-ko esparru zaharrean kokatuta dagoen Maier SL fabrikaren isurketak kontrolatzeko programa garatu da.

– Eltzaburuko harrobiaren sailkatutako jardueraren espedientea izapidatu da.

– Burutaingo txerri-granjaren isurketen kontrola ere ezarri da.

– Aurten Zuriainen kolektore bat eta hobi septiko bat egitea aurreikusita dago. Arazketa hobetzeari dagozkion gainerako jarduketak ondorengo urteetan burutuko dira, Nafarroako Ibaien Saneamenduko Plan Nagusiaren esparruan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

